

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Alkatearen eskumenak zinegotziei eskuordetzea

Alkatearen otsailaren 28ko 49/2020 Dekretuaren bidez, hau ebatzi da:

– Bigarren alkateorde Inma Elortza Bergararen eta zinegotzi Itziar Mendia Celaáren esku uztea berdintasun eta kultura arloak eta hezkuntza eta gazteria arloak, hurrenez hurren.

Eskuordetzeek dagozkien zerbitzuak zuzendu zein kudeatzeko ahalmena dakarte berekin, oro har, baina ez da horietan sartzen hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzen bidez ebazteko ahalmena.

– Udalbatzari ebazpen hau jakinaraztea egiten duen hurrengo bilkuran.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2020ko otsailaren 28a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIERREZ URKIZA